

BEZERO-SEGMENTUAK

Gure enpresak aiton-amonentzako zerbitzuak eskeintzen dituen bezala, gure target-ak hain zuzen ere hirugarren adineko behartuak izango dira, bai laguntza behar dutenak bai edozein mendekotasuna dutenak eta baita beraien seme alabak ere, bitarteko moduan.

Gaur egun gazteok eta helduak denbora asko eskaintzen diegu gure beharretara, lanera eta baita gure bizitza sozialera ere, helduentzat bereziki, etorkizun hurbilean pozik eta errealizatuak sentitzeko. Baina hori guztia egiten dugun bitartean, hirugarren adineko pertsonak bitza eroso eta ona edukitzeko borrokan ari dira, baina bere mugak fisiologikoei eragozten diete hori. Hain gaude guriori begira, non ez baitiegu begiratzen gure laguntza behar duten pertsona zaharrei, urte batzuk barru gu beraien izango garela jakinda. Baina haiek bezalakoak izatean, gizartea gutaz ahaztea gustatuko litzateke? Ez, eta zerbitzu honekin, honek horiek behar duten arreta eta laguntza bultzatu nahi dugu, guk etorkizunean nahi izango duguna.

Badakigu Gipuzkoan adin nagusiko pertsona asko hil egiten direla hilabetero, eta ez bakarrik gaixotasunengatik, baita arreta eskasagatik eta bakardadeagatik ere. Zerbitzu honek honekin guztiarekin amaitu nahi du. Badakigu ezin ditugula saihestu minbizia bezalako gaixotasunak, aurretik milaka pertsona daramatzana, baina hare gehiago gure bezeroak bezalako defentsa baxuko pertsonak. Baina bizitza ona eman diezaiekegula ziurtatu dezakegu, janaria eraman, etxea garbitu, eta bakarrik egotekotan, pertsona bat bidali konpainia egiteko.

Adibidetan sartuta, aurtengo lehen hilabetean bakarrik, Aragoiko bi adin nagusiko heldu hil egin ziren, eta beraien gorputza egunetan ez zuten aurkitu ere egin. Bakardadea goranzko joeran dago mendebaldeko mundu osoan, eta izurritzat jotzen da, zeinaren ondorioak osasunean, gizentasunarenak baino larriagoak baitira.

Bakardade sentimendua luzera begira heriotza-arriskua %26 areagotu daiteke, eta benetako isolamenduaren kasuetan ehuneko %32-ra iritsiko litzateke.

Gure target-en bigarren aurpegia, gizon emakume hauen bitartekoak dira, adibidez haien seme- alabak. Hauen papera ezinbestekoa da gure zerbitzua aurrera eramateko. Badira pertsona batzuk entzuteko edota ikusteko arazoak dituztela, eta haiekin harremanak izateko hasieran hauen laguntza behar dugu. Gainera, askotan seme alabak izango dira gurekin harremanetan jarriko direnak, aiton amonek ez dutelako bere kabuz zuzenean gure enpresarekin kontaktatuko, logikoa den bezala. Gainera aiton-amonak edozein arazo izatekotan, seme-alabekin kontaktatu dezakegu argitasunez azaltzeko (edozein diskapazitate duten pertsonetaz hitz egiten badugu) eta gertatutakoa konpontzeko. Hasieran ere, gailuak instalatzeko eta funtzionamendua azaltzeko, eskertuko dugu

pertsona hauek hemen egotea, esandakoa jasota eta gordeta dagoela ziurtatzeko, eta edozein berrikuntza edo aldaketaren berri izateko.

Azkenik gure asmoa zerbitzua lehenengo Gipuzkoan bakarrik bizitzen diren bezeroei eskaintzea da. Baina, erantzukizuna nolakoa den jakin eta gero, gustatuko litzaiguke Euskadi mailan eskaini ahal izatea.